



Winesburg, Ohio  
Egilea: Sherwood Anderson  
Itzultzailea: Joannes Jauregi

Badira liburu batzuk gehiago preziatzen direnak itzulpenagatik, liburuagatik beragatik baino. Eta hau liburu horietakoa duzu. Horrekin ez dut esan nahi nobela, kontatzen zaiguna, balio gutxikoa dela. Ez, ondo dago, entretenigarria eta interesgarria da, dudarik gabe. Baina Joannes Jauregik egindako itzulpenak liburuarekiko interesa eta erakarmena nabarmen handiagotu ditu, behintzat nire kasuan. Betiko kontua da: idaztea arte bihurtzen denean, gainerako guztia aitzakia baino ez da. Eta Joannes Jauregiren itzulpenak arte maila erdietsi du.

Itzulpenean erabilitako euskara eskola “preziosista”ren ildotik doala esango nuke, zeinaren ordezkariarik nabarmenetako bat Patxi Zubizarreta dugun. Eskola horretan ez da edonor sartzten, ikaslerik abantailatsuenak salbu.

Joannes Jauregiren euskara delikatua da eta ez zaio bat ere inporta etxean ikasitako hitz erdi erdaldunak erabiltzea, horrek balio badio nahi duen efektua lortzeko. Esaterako, “Zer pasatzen ari zitzaien konturatzerako, bera ere enamoratu zen”. Zer nolako esaldi polita, bere sinpletasunean... Beraz, elementu gutxirekin erro sakoneko esaldiak sortzeko duen ahalmena eztabaida orotatik kanpo dago. Baina erro sakoneko esaldiak izateaz gain, irakurlea hunkitzeko ahalmena duten esaldiak ere badirela esan beharra dago.

Metafora bat eginez, esaldiak gitarraren sokak izango lirateke; irakurleak, berriz, gitarraren erresonantzia-kaxa. Biak batuz gero, eta biak kalitatekoak izanez gero, emaitza (hunkipena) bermatua dago.

Bestalde, garbi dago Joannes Jauregi euskal gramatikaren ezagutzaile fina dela. Izan ere, berak aurrean paratu dizkigun esaldiak euskararen (euskal gramatikaren) ondarearen parte direla esan daiteke. Are gehiago, esaldi horiek beste testuinguru batean modu berean esan ahal izango genituzke, plagioan edota imitazio hutsean erori gabe. Esaterako, har dezagun adibidetzat liburutik hartutako honako esaldi hau: “Imajina daitekeenik eta, leunena zuen boza”. Bueno ba, esaldi horretatik abiatuta, antzeko esaldiak sortu ahal izango genituzke... infinituraino. Adibidez: “Imajina daitekeenik eta, munduko gizonik indartsuena zen”. // “Irudika daitekeenik eta, begiak urdinenak zituen”; eta abar, eta abar, eta abar.

Beraz, eraketa sintaktiko horiek guztiak euskararen (euskal gramatikaren) ondarearen parte direla baieztatu daiteke inongo arazorik gabe. Jakina, itzultzailearen meritua da esaldi horiek non, noiz eta nola erabili erabakitzea, hizkuntza arrotzetik euskarara maisutasun handiz egokitze, euskaraz eta euskaratik zuzenean sortutako liburua delako irudipena emateraino.

Egia esan, hurrengo Euskadi Saria ez dakit nori emango dioten itzulpenaren modalitatean, baina Sherwood Andersonen “Winesburg, Ohio” liburua, Joannes Jauregiren bertsioan, hautagai oso duina izango litzateke, nik uste.

Nire aldetik, hauxe da liburuaz esateko dudan guztia. Baina liburuaren erreseina amaitu baino lehen, liburutik atera ditudan hainbat esaldi erakutsi nahi dizkizuet, goian esan dudanaren lekuko. Arrazoi batengatik edo besterengatik arreta eman didaten esaldiak dira. Noski, batzuk baino ez dizkizuet transkribatuko, argitaletxearen eskubideak ez bortxatzearren. Beraz, itzulpen eder honetako esaldi interesgarri guztiak zeintzuk diren jakin nahi izanez gero, badakizue zer egin: jo liburudendara eta erosi liburua. Ea gainerako esaldiak aurkitzeko gai zareten!

- Imajina daitekeenik eta, leunena zuen boza.
- Zer pasatzen ari zitzaion konturatzerako, bera ere enamoratu zen.
- Mutil guztien bizialdian, izaten da garai bat non aurrenekoz atzerantz begira diezaioketen bizitzari.
- [...], eguzkitan zimeltzera destinatua, artoa nola.
- [...] Whitengana, bankariaren alabagana, bueltatu zitzaion gogoan.
- Neska maitatu nahi zuen, baita hark bera maite zezala ere.
- Bideetan trostan zebiltzan etxaldeetako zaldiak, gurdia bete jende nekatu zeramatela.
- ... aurrera jo zuten, artoa artean bildu gabeko soro batean zehar.
- ... istant batez biek harrapatu zuten mundu modernoko gizon-emakume helduen bizitza posible egiten duen zer horixe.
- Apiril goiz hartan ere hara nahi zuen, isilean paseatzera.
- Zerbait eraikitzen zuen, eta gero suntsitzen.
- Jostatzeko umorean zegoenean, Reffs doktore zaharrak, hartu patrikatik esku bete paper bola, eta mintegizainari botatzen zion.
- [...] sagar zimur eta oker horiek patrika beteka biltzen
- Eta begira geratzen zitzaizkion, bozean halako gose bat zeukatela.
- Besteak, kalpar beltzeko mutil belarri-luze batek, ez zuen ezertxo ere esaten.
- Sagar okerren gozoa deskubritu berri duena bezala zegoen.
- Sinetsita zegoen aspaldi egin zuela etxe zahar harenak.
- Batzuetan aulkiren bat jotzen zuen, eta lurrean arrastatzen.
- Atera ohetik nola edo hala, jantzi, eta azkar batean korridorean barrena egin zuen.
- Hotela bezeria galdu eta galdu ari zen.
- Korridorera itzultzeko zorian zegoela, bertantxe gelditu zen.
- Emakumeak senarra barreka aditu zuen.
- Emakumeak ukabilak estutu zituen, eta soa zorrotzu.
- Jo armairura, hartu lauki formako kaxatxo bat, eta mahaian utzi zuen.
- Txaleko zuri, zikindu bat ibiltzen zuen beti, haren patriketatik *stogi* motako zigarro beltz batzuk agerian zituela.
- ..., bestela bezala (= como si nada)
- Willy andrea [...] barra aurrean eserita zegoen saskia besotik zintzilik zuela.
- Joe gorputzez txikia zen, eta, izaeraz, herrian beste inor ez bezalakoa.

- Larunbat arratsalde beranduan, [...]
- Zer pentsatua ematen du, ezta?
- Joe Willing ikusi zuen, kalean aurrera zihoala, bi Kingdarrak lagun zituela.
- nor bihurtu (= convertirse en alguien, ser alguien en este mundo)
- [...] bizilege berrian sartu bezperan, [...] Alicerengana joan zen bisitan.
- [...] herrira bueltan, kontentu handia sentitu zuten biek.
- Urtea bukatzerako eskutitzak idazteari utzia zion.
- Denborarekin, gero eta bakartzenago joan zen.
- Asteak hilabete eta hilabeteak urte bihurtu ziren.
- Eta bien bitartean, maitearen esperoak eta ametsek bizi zuten Alice.
- [...] otoitzean saiatu zen, baina, errezoa gabe, protesta ezpaineratu zitzaion.
- Eta segidan, arindu-suerte estrainio bat sentitu zuen.
- Ama Bush Miltonekin ezkondu zitzaion, Winesburgoko zalgurdi-pintorearekin.
- Hainbeste gauza gertatzen dira, ez daukate zahartzeko denborarik.
- Alice elizara bildu zen.
- Bazeukan zerbait barren sakonean.
- ilunetan (ilunpean = en la oscuridad)
- eta euritara atera zen.
- Hain zegoen beldurtuta zer egin zuen pentsaturik, gizona joandakoan ere ez baitzen ausartu zutizera.
- [...] kexatu egin zitzaion, baina arraposturik jaso ez.
- [...] Wash zaharraren igual-iguala da.
- Emakumea garaia zen, eta liraina.
- Ni inuzente hutsa ninduan, heu oraintxe bezala, eta zer, eta emakume harekin ezkondu.
- [...] gorrotozko kontakizun hartan bazen kasik ederra zen zerbait.
- Haren amak, zer, eta bertan utzi ninduen.
- Ni zain nengoela, neskari arropak kentzen aritu zitzaion.
- Ezingo nuke imajinatu zu aita bezalako gizon ona bihurtzea baino gauza hoberik.
- Denik eta errietarik latzena emanda ere, mutila apaltzen ez.
- [...] baldinbaitere zer edo zerk goitik behera inarrosiko balu.
- Letoizko aldaba astun bat zegoen atean, Helen Whiteren amak —emakumeen poesia-klub baten antolatzailea bera— herrian sartutako nobedadea.
- [...] zuhaitz adar-okarren itzal gero eta beltzagoekin
- [...] gaueko eulien saldo gero eta oparoagoari segika.
- Berokiaren poltsikoan sartzan zituen, eta kalean ibiltzen zen, edo eskolako patioa oholesian bermatuta geratzen, saihetsetan erremin-sentipen bat zuela.
- Erlijioaz solastatu eta pentsatu besterik ez zuen egiten aitak.
- Horixe behar dute gizonak emakumeengandik; lortzen ez, ordea.
- "... txinto portatu", esan zion, lakar, baina alaba isiltzen ez.
- Bederatziak paseak ziren etxetik atera zenerako.
- [...] eta pentsatzera sekula ausartu ez naizenak pentsatuko ditut.